

SAGARDOA

- II/ Sagardo sagarrak baserritarren osagarri
- III/ **Antxon Olaizola** Fruitel elkarteko presidentearekin
- IV/ **José Miguel Bereziartua** sagardogilearekin

CONSERVAS VEGETALES DE NAVARRA

- V/ La hortofruticultura navarra en jaque
- VI/ Con **Koldo Zerezeda**, técnico de «Alimentos Congelados S.A.»
- VII/ Con **Txomin Otamendi**, director general de «Industrias Alimentarias de Navarra S.A.»

Opinion desde los consejos reguladores
- VIII/ Con **Rafael Arnal**, director gerente «Bajamar S.A.»

SERVICIOS

- IX-XI Al habla con los responsables de las cooperativas de servicios de los sindicatos de EHNE-UGAV

MERCADO y PRECIOS (contraportada)

Antxon Olaizola, «Fruitel», Gipuzkoako Fruitugintzaileen Elkartearen presidentea

«Prezio gehiago eskatu nahi baldin badugu, kalitate eta antolaketa hobetu behar dugu»

Gipuzkoan sagardo sagarraren produkzio maila, aurtengo kanpainan izandako prezio beherakada eta aurrera begira produkziogintzan hobetu behar diren arloak dira «Fruitel»

elkartearen presidenteari egindako elkarrizketaren gaiak, besteak beste. Elkarte hau Gipuzkoako fruitugintzan ari den elkarte sektorial bakarra da.

-Zer mailan aurkitzen da Gipuzkoako sagardo sagarraren produkzioa?

«Lehenengo urteekin konparatuta hiru aldiz igo da gure produkzioa, baina behar guztien hirurteak bat bakarrik betezen dugu. Sagaruza hobe izan da. Orduan badirudi hirukoitze egin dela produkzioa, baina beharren eren batera ez gara iritsi. Zentzu honetan, merkatua horbadagoela guretzat ikusten dut. Kalitate eta kalitatearen aldetik ondo kokatuak gaudela uste dut. Dena dela, produkzio mailan jarri da arbola asko, baina oso baldintza txarretan sartuta. Errezena da

subentzioa jaso eta arbola aldatu, baina arbola landu eta zaindu behar da. Arlo hori gehiago zaindu behar da. Subentzioa ondo egon da promozionatu egin duela neurri baten, baina izan da tranpa bat askotan».

-Aurtengo kanpainako prezioak kexa asko entzun dira baserri-erregandik.

«Azken kanpaina honetara arte prezioak altuagoak izan dira, kiloko 34 pezeta aurreko urtean. Kanpaina honetan, ordea, behar akada izugarria izan da, azkenik prezioa 29 pezetatik geratu delarik. Asturias aldean, prezioa

27 pezetatik hasi eta 36 pezetaraino finkatuta zegoela eta gure sagarra egokiago atera zela ikusirik, prezio oinarria 27 pezetatik eta plusa 36ra arte ezartzea proposatu genuen produktoreen elkarteek. Halere, sagardogileek ez zuten onartu eta bere proposamena izan zen oinarria bakarrik igotzea, produktua hirukoitze egin zenez plusa ez zela egon beharrik esanez. Orduan akordio falta hortan Diputazioari eskatu zitzaion arbitrajea egitea. Hasiera baten ez genuen hori onartu, pentsatzen genuelako Diputazioak ez zuela horretan sartu beharrik, baina, azkenean, denbora aurrera aitzola eta, onartu genuen. Azkenik, guretzako prezioa ez da onia izan. Gero, negoziaketetan Administrazioari sartzeko esan zailonean datuak nola atera dituen ez dakit, jakin badakigulako Asturiasetik ekarri diren zenbait sagar 29 pezeta baino garestiagoak izan direla».

-Zerbait egin ahal da produktoreen aldetik prezio altuagoak lortzeko?

«Gu ez gaudela prest kanpoin orda indutako prezioak baino baxuagoak izateko, baina eta gehiagora bultzatzeko, kalitate eta antolaketa baten truke. Prezio gehiago eskatu nahi baldin badugu, kalitate eta antolaketa hobetu behar dugu. Gure proposamena, etorkizunari begira, baserriarari kalitateaz kontzientziatu erazi eta antolaketa, bai bilketa mailan bai kalitatearen kontrolan, bultzatzea da. Alderdi horietatik esan behar dudana da guk aurten prezioaren negoziaketan proposatu genuela kalitatea pizka bat kontrolatzea. Hau da, elkarteek beraiek kalita-



tea kontrolatzeko bideak jarri eta partida batzuek txarrik izatekotan bueltatu edo penalizatzen prest geunden sagardozaleen aurrean. Baina beraiek ez zuten sartu hortan. Horrek pizka bat harritu egin zigun. Orduan, alderdi horretatik guk esfortzu bat egin genuen».

-Orduan, prezioarekin batera kalitatea eta antolaketa arloak ere hobetu beharko direla diozu. Zehaztu gehiago idea horiek.

«Nahi baldin bada zerbait egin sagardo sagarrarekin izango da prezio egoki bat eskatu, baina kalitateaz kontzientziatu baserriarari eta gero kontrolatu. Orduan, ikuspegi horietatik behar bada prezioa jartzeko sistema aldatu egin beharko da, kalitate primatu. Bilatu beharko dugu prezioak negoziatzerakoan sistema berri bat, oinarrituko prezio bat eta gero kalitatearen arabera plus bat egon beharrean, kalitatea primatzen duena ipintzea komenigarria izango litzateke. Orain arte aplikatutako sistema horrekin ez gara ongi ulertu. Jadanik ari gara hortaz hitz egiten eta oraindik eztabaldatu behar dugu gehiago asuntxo hau datoren urterako».

Bestalde, bilketa eta garraioaren antolaketa mailan, bilatu behar ditugu sistema batzuek, komisiok eta abar murrizteko».

-Zertan datza «Fruitel» elkartearen zeregina?

«Fruitel» da Gipuzkoako fruitu arloan dagoen elkarte sektorial bakarra. Fruitu guztietan arduratzen gara. Gipuzkoan sagardo sagarrak, mahai sagarrak eta gero kiwiak dira inportanteenak. Egun inguru produktore gaudela, asko gazteak eta landaketak hasi direla ikusten dugu. Produkzioa eta tratamendua informazio eta laguntza ematen dugu eta gero sagardo sagarraren arloan ere prezioa negoziaketetan parte hartzen dugu. Datoren urterako, negoziaketak egin aurretik produkzioaren estimazio fidagarri bat izan nahi dugu. Beraz, bilketa hasi baino hilabete lehenago kide bakoitzak zenbat kilo izango duen sailtuko gara ezagutzen, zerekin kontatzen dugun jakiteko. Zaila da baina hor ere sartu nahi genuke».

-Konturatzen da jendea elkartearen lanak duen garrantziaz?

«Jendea beti elkarteaz gogoratzen da sagarrak lurrean daudenean. Elkartearen beharra ikusten da justu sagarra bildu baino hilabete erdi bat lehenago. Gauregun, lehen esan dudanez, sagarraren bilketa, garraioa eta abar beste planteamendu batzuekin ikusi behar direla kontzientziatu behar da».

FRUITEL

Gipuzkoako Fruitugintzaileen Elkarte

Landatxe Etxea • 20180 Oiartzun
Tfnoa.: (943) 49 32 94

ISASTEGI

SAGARDOTEGIA

Aldaba Txiki Auzoa
Tef. (943) 65 29 64

TOLOSA

SAGARDOTEGIA

PETRITTEGI

OTANO anaiak

Petritegi bidea
Tel.: (943) 45 71 88 - 47 22 08
20115 ASTIGARRAGA

Astarbe

Sagardotegia

Mendiola Baserria
Astigarraga
Tef.: 55 15 27


Akarregi

Sagardotegia

Jose Izagirre
Akarregi Baserria
HERNANI
Tef.: (943) 55 34 95

Lizeaga

Sagardoak



Gartziategi Baserria • ASTIGARRAGA
Tfnoa.: (943) 46 82 90

SAGARDOTEGIA



ASTIAZARAN

JUAN IGNACIO ASTIAZARAN

Zubieta auzoa - Tel.: 36 12 69 - DONOSTIA (Gipuzkoa)

SARASOLA

SAGARDOGILLEA

Zumatikardi Baserria
ANOETN
Tef.: 65 26 22
Sagardotegia
ASTEASUN
Tef.: 69 02 83

Sagardorako sagarrak baserritarren osagarri

Gipuzkoan sagardoa egiteko transformatzen den sagar kopuru osotik hemengoa (Gipuzkoan sagar gehiena ekoizten da) ez da %30ra iristen, gainontzeko sagardoa sagarra Asturias, Galizi eta Normandiatik ekartzen delarik batipat. Beraz, argi dago «gure» baserrietan sagarra ez dela inoliz izan ihardueranagusia eta azalazango dela hemendik aurrera izatea. Esandakoa azaltzeko arrazoi historikoetara jo beharko litzateke, industrializazio garaia, hain zuzen ere, ordutik hasi bait zen sagastiak kentzeko prozesua Euskal Herrian.


Dena den, ez da ahantzi behar lagungarri nagusi eta inportantea izan dela eta dela Gipuzkoako baserritarrentzat eta horrela izaten jarrai dezan bi parametro kontutan hartu behar dira, EHNE-Gipuzkoak dioenez.

Alde batetik, sagardoi bertako produktu naturalaren irudia ematen bazaio, bertako produktzioa «mimatu» beharko da,

sindikatuaren ustez, eta horrek, beste gauza batzuen artean, prezio egokiak mantentzea dakar. Ostantzean, epe motzera ez da iharduera lagungarria izatera ere iritsiko. Aurten, adibidez, kontrako gertatu da Gipuzkoan, hau da, kanpotik etorri den sagarraren prezioa baino baxuagoa egitea hemengoak. Hori horrela gertatzearen errudunetarikoa bat hainbestetan salatutako Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza sailaren jarrera izan da, EHNE-Gipuzkoaren iritziz.

Bestalde, Foru Aldundiak iharduera hori bultzatzeko jarri dituen bideak ez direla nahikoak uste du sindikatuak. Sagari landaketak egiteagatik diru laguntzak ematea ezer gutxi da, EHNE-ren ikuspegitik, gero ez bada arlo hau benetan lantzen. Bere ustez, iharduera hau benetan lantzeak esan nahi du, genetikoki barietateak aztertu, luraren azterketa fisiko-kimiko egin, hemengo eguraldiari dagozkion barietateekin lan egitea eta abar luze bat. Azken batean, kalitatearen bidea izan behar da benetan jorratu behar dena, sindikatuak esandakoaren arabera.

Sagar produktore eta sagardogileen arteko harremanak hobetzea da EHNE-k lortu nahi duen beste helburu bat. Zentzu honetan argi utzi nahi du Gipuzkoan eratu behar den Interprofesionalean produktoreak ordezkatzeko sindikatuak bakarrik



egon behar direla eta ez elkarte sektorialak. Orain dela urte batzuek Administrazioak Gipuzkoako mailako sagar-sagardo Interprofesionala-ri buruz aurkeztu zuen berridonean elkarte sektorialak bertan egoteko aukera ematen zuten eta

horrexegatik sindikatuak ez zuten proposamen hori onartu. Bere iritziz, gaiari heldu behar zaio berriro behar bezalako Interprofesional bat sortzeko. Interprofesional baten eraginez lortu daitekeenaren adibide argia da Asturiasko Inter-

profesionalak aurten sinatu duen hiru urtetarako prezioei buruzko akordioa. Honen arabera, oinarri-zko prezioak 27 (urriaren 12ra arte), 32 (geroztik azaroaren 12ra arte) eta 36 (azaroaren 12tik aurrera) pezetakoak dira.

URDAIRA
SAGARDOTEGIA

*Astelehenetan
ezik irekita*

Urdaira baserria
AGINAGA (Usurbil)
Telf.: 37 26 91

DISTINTIVOS DE CALIDAD DEL AUTENTICO IDIAZABAL

ARTZAI - GAZTA

 QUESO DE PASTOR

IDIAZABAL
 Con la garantía de la Denominación de Origen



